3. zenbakia
1999ko urria

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

uk



Ruper Ordorika

"Neure burua gero eta gehiago ikusten dut muturreko pertsona bezala"

Ez galdu aukera hau. Egin zaitez harpidedun!

roberto laiseka • virginia berasategi



902 123 456
NaturGas, Euskadiko gasa

NaturGas

Sociedad de Gas de Euskadi, s.a.

Grupo EVE



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ / TESTUA: ESTI EZKERRA

irudia

Plentziak 700 urte, zorionak!

Halaxe da, 700 urte bete ditu Plentziak, 1299an Lope Diaz de Harok bere iloba Diegok emandandako eskubide baten bitartez fundatu zuen hiriak. Modu horretan, Gorlizko Gaminiz auzoa Plentzia izeneko itsas-herria izatera igaro zen. Bi herrien arteko harremanek gorabehera handiak ezagutu zituzten, baina arazo horiek urrun gelditzen dira gaur egun.

Plentziaren historian itsasoak garrantzi handia izan du eta arrantzaz gain itsasontziak ere eraikitzen ziren Isuskiza menditik ekarritako zuraz.

Diego López de Harok emandako eskubideeek gainontzeko herrietatik bereizten zuten Plentzia. Tello jaunak 1366an eskubideak berretsi eta hauen arabera hiritik kanpokoek ezin zuten oinarrizko ekoizpenekin merkatal jarduerarik egin hiri barruan. Horrez gain, burdina eta gatza saltzeko tokiak jartzea debekatu zuen, garai hartan garrantzi handiko produktuak zirenak. Juan Infantek birritan berretsi zuen fundazio karta eta itsasontziren bat hondoratzen zen kasuetan, jabeek kalteordain osoa jaso zezatela agindu zuen. Enrike IIIak 1393an eta Juan IIak 1428an eskubide horiek berretsi zituzten. Aspaldiko kontuak dira horiek eta gaur egun herria klasikotasunaren eta modernitatearen arteko tirabiran aurkitzen da, baina itsas-herriak betidanik izan duen izpirituak iraun egiten du.

Zorionak Plentzia, eta urte askotarako! ■

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILEA: Uribe Kostako Aldizkaria **HELBIBIDEA:** Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 **ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru **ERREDAKZIOA:** Esti Ezkerra, Zaloa Mendez, Verónica Muñoz, Andoni Llosa, Konrado Mugerza **ARGAZKIAK:** Mikel Martinez **ERREALIZAZIOA:** Jokin Aspuru **TESTUEN ORRAZKETA:** Joseba Butron **INFOGRAFIA:** Guillermo Almagia **MARRAZKILARIA:** Gorka Vázquez **ADMINISTRAZIOA:** Konrado Mugerza **PUBLIZITATEA:** Amaia Bilbao **KOLABORATZAILEAK:** Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Sabin Ugarte, Iker Lores, Xabier Buenetxea, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola **ALE KOPURUA:** 5.000 **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF **BULEGO ORDUTEGIA:** 9:00 / 13:00

Sopela
ate eta armairuak
Sabino Arana 14, Sopela
t: 94 676 54 44

Barrukoa Taberna

Telletxe 5
ALGORTA

SANTANA KIOSKOA
Prentsa eta aldizkariak
Santana kalea, Amaiarekin bat
AREETA


BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKETAK
T: 430 53 46
HIRURAK
Sarrikobaso 15 48990 ALGORTA

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak
Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO
Telletxe 13 T: 460 02 88 ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

Riki Mutuberria, Maastricht-en ikertzen



- Ricardo Mutuberria Zabala, 31 urte
- EHUn Biologia ikasketak egiten hasi eta Cincinnati-ko Unibertsitatean (Ohio-USA) graduatu zen
- Madrilen eta Inglaterran masterrak eginak ditu
- Duela hiru urte Holandara joan zen doktotatua egitera

"Munduko jendea dira holandarrak, oso irekiak"

Holandan bai, baina non bizi zara zehazki?
Maastricht hirian, Limburgo probintzian. Hizkuntza eta kultura berezia dituen probintzia da hau. Belgikako eta Alemaniako mugetatik 10-20 minututara dago bizikletaz.

Zertan zabiltza hor?
Lau urteko doktoratua egiten ari naiz; nire ikerketaren gaia: antigorputz errekonbinanteak. Honek badauka koloneko minbiziarekin zerikusia.

Zergatik aukeratu zenuen leku hori eta ez beste bat?
Holandan ikerketarako diru asko dago, adibidez, izugarrizko ospitale batean egiten dut lan. Baina arrazoi nagusia nire nagusia zen, 36 urte besterik ez ditu eta antigorputz errekonbinanteen teknikaren sortzailea da.

Hango eta hemengo ohiturak eta jendea oso desberdinak dira, ezta?
Bai, nahiko desberdinak. Hemengo iragan protestanteak euren izaera asko moldatu du. Oso jende kontsekuentea da; legeak, eginkizunak eta euren ideiak zehatz-mehatz jarraitzen dituzte, sarritan azken mùturreraino. Holandarrak jatorrak dira, gainera munduko jendea da, oso irekiak. Unibertsitateko edozein ikasle munduko hamaika herritan ibilia da eta gehienak, ingelesa eta holandesaz gain, frantsesa, espainiera edo alemaniera hitz egiten dute. Bestalde, oso jende antolatua da.


Horko gauzetatik zer da gehien gustatzen zaizkizunak eta zeintzuk gutxien?
Gehien, jendearen pentsamodu liberala, hemen dagoen giro internazionala (Europako erdigunean dago Maastricht), bizikletaz ibiltzea, nik daukadan askatasuna, lanean gauza politak eta interesgarriak egiteko aukera, loreak eta arrainak (batez ere bixigua) oso merkeak dira. Gutxien, berriz, burokrazia eta flexibilitate eskasa, egun hotz eta ilunak (itsasotik urrun bizitzeak ez du laguntzen) baina jende jatorraz ingurutzen zarenean, hori bost axola.

Kanpoan bizi izanda, zeren falta sentitzen da?
Familia noski, baina orain, batez ere, neure hiru hilabeteko iloba, Galder, arreba Mariaren semea. Pena ematen dit bere haurtzaroa galtzea. Euskal Herriko giro bereziaren falta ere nabaritzen da.

Pasadizoren bat?
Egun batean telefono publiko baten inguruan, jende handia ikusi nuen. Jendea bikote bati laguntzen saiatzen zen, baina inork ez zekien gazteleraz egiten; gipuzkoarrak ziren.

Testua: Jokin Aspuru

ikimilikiliklik



Jose Ignacio Lobo

Miguel Angel Meñaka

"Liburutegietako sagu" hau aspaldiko kontuetan aditua da. Herriko historia, zuhaitz genealogikoak... dira bere zaletasunak eta ezagutzen dutenek badakite zer-nolako gogoz egiten duen lan . Orain 36ko gudan Plentzian eta Gorlizen hildakoen oroimena berreskuratzen saiatzen ari da.

Sosegu eza

Sosegua, automaten babesa, printzesaren desioa, grina eta mina.

Goizeko ordu txikietan, gure barneko lapur txiki horrek, zenbaitzuk deabru deitzen dioten horrek, hitz potolo handiak esaten dizkigu, deszifraezinak.

Orduantxe hasten da kotoizko gure kabia kulunkatzen; orain ez da horren erosoa, orain soseguezean gaude.

Goizeko kafesnean bustitzen garenetik eta gaueko deabru, loaren lapur, *"Pepito Grillo zirikatzaile"* etorri artean, bizi, bizi, ekintzak bete, arin, arin, zenbat eta arinago hobeto, zenbat eta arinago orduan eta gauza gehiago egin, bukaeran arnasa har dezagun, eskerrak... Nahiko logikozientifikoa da, ezta? 2000. urteko txip amestua.

Bizitzak eskaintzen diguna ahalik eta ondoen egin, exigenteak garelako, pertsona indartsuak, boteredunak, nortasun txarteldunak, kotxedunak, etxedunak, dirudunak eta laster batean heriotzadunak. Hori heldu aurretik "dun" guztiak bete behar ditugu, *homo sapiens* atzean utzi genuelako, orain adimentsuak gara.

Den-dena erlojupean, bidean *stop* eginez gero, sosegueza azalduko zaigu eta... hau beldurra!, hau berriro korritzeko gogoa. Arin, arin, harrapatu egingo gaitu... Zeren beldur?

USOA IRIGOIEN



Goiko argazkian metroko lehenengo bagoiak ekarri zituzteneko unea ikus dezakezue; azpikoan berriz, Areetan zegoen lokomotora zaharra, nora eraman duten ez dakigunekoa. Bizitzan bezala, batzuk badoaz eta badatoz besteak. **ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ**



Zer da pertsona batengan gehien estimatzen duzuna?



















EGILEAK: OIHANE MANDIARAS, OIHANE MENTXAKA & KATRIN MUGERZA

basurto
algorta S.L.
altzariak
T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

Maria Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

VILLABOTAS
JATETXEA
Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO
Kantxa Kizol moda
TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALZADOS RIKI
UMEAK
GAZTEAK
Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA

Ruper Ordorika

Laster beteko dira 20 urte oñatiar honek kantatzeari ekin zionetik. *Hautsi da Anphora* izena jarri zion bere aurreneko diskoari eta izenak dioen bezala, ordura arteko euskal musikaren ontzia erabat urratu zuen. Poesia eta musika eskutik hartuta ibili izan da urteotan eta honen emaitza dira kalean dituen hamaika diskoak. Azkena, *Dabilen Harria*, iaz kaleratu zuen. Kantu zaharra biziki maite du. New York, Londres, Bilbo, eta Gasteizen bizi izan da. Orain, berriz, Oñati aldera itzuli da. Sorlekura.

Testua: Iker Lores / Argazkiak: Mikel Martinez

"Hemen, gure gizartean, dena leporatzen zaio euskaldungoari, dena: euskaldungoa gutxi da, ez da oso jende dotorea, glamurrik gabeko gizarte bat da, eta abar. Eta inork ez du aztertzen Euskal Herriko erdaldunen papera; zenbat probintzianismo dagoen, zenbat aurre iritzi dagoen, eta zenbat ignorantzia dagoen euskal gauzez"

—20 urte beteko dira laster *Hautsi Da Anphora* plazaratu zenuenetik. Non kokatzen zenuen zeure burua orduan eta non kokatzen duzu gaur egun?

—Zaleen munduan kokatzen dut neure burua musikari dagokionez. Gehien eragin nauen gauza, gehien emozionatu nauena beti izan da kantua eta musika. Betidanik izan naiz zaletu bat, beti ibili izan naiz kantuei buruz pentsatzen eta halako batean ikusi nuen neure burua kantu berri batzuekin eta neure inguruko jendeak bultzatu ninduen grabatzera. Amets bat gauzatzea bezala izan zen hura. Orain ere horrela bizi naiz, ez daukat ikuspegi zehatz bat egiten dudanari buruz edo zenbat aldatu den. Egin nezake horrelako ariketa bat baina ez dut termino horietan pentsatzen.

—20-25 urte hauetan talde asko sortu eta desagertu dira; bakarlari askok. ordea, hortxe irauten duzue. Horra hor Laboa, Juan Carlos Perez, Lete, zu zeu… Bakarlaria izan beharra al dago iraun ahal izateko?

—Nire aurrekoak hor zeuden eta nigan, sasoi hartan eta orain ere bai, oso garrantzi handiko erreferentziak izan ziren. Nik, egiazki, uste dut badagoela industria arazo bat, gutxi gara eta horren arabera oso zaila da egiturak mantentzea. Askok esaten didate ezin dela hain arrazoi sinplea izan, baina nik baietz uste dut. Euskaldungoa gutxi da eta egiturak mantentzea zaila da, bai musikan eta zer esanik ez zineman, edo beste hainbat ekintzatan. Hala ere, aipatu dituzun kantari guztiek lan egiten dute talde bezala, nahiz eta bakarlariak diren. Horrek esan nahi du beharbada sormena, lana, modu indibidual batean egin daitekeela baina hori jende aurrean gauzatzea oso zaila da egitura txikietan.

—Baina estatu mailan hainbat kantautore arrakastatsu sortu dira: Guerra, Alvarez, Rosana…; hemen, ordea, daudenek ez dute jarraitzaile askorik…


—Proporzioen arabera ikusten dut hori. Erderaz kantatuz gero beste esparru bat dago. Behin eta berriro ekiten diogu galdera eta erantzun honi. Euskaldun jendeak euskal kantua maite du berdin Zuberoan nola Bizkaiko muturrean baina proporzioa oso txikia da. Esan beharra dago, hala ere, hemen kantari asko agertzen ari direla, hor daude Petti nafarra edo Gasteizen bizi den Mikel Telleria idiazabaltarra edo beteranoagoak, Montoia, Anari, denak diskoekin, grabatzen edo emaitza batekin. Hori gauzatuko da baldin eta jendea horretara batzen bada. Ez dut uste bide samurra denik ezta Madrilen ere, ezagutzen dugun bakoitzaren atzean badaude hamar ezer lortzen ez dutenak. Portzentaia kontu bat da.

—Frankotiradore sentitzen al zara?

—Nik hori esan nuen behin, baina dagoeneko disko batzuk egin ditut eta norberaren perspektiba kanpotik ikusita ezberdina da. Alde horretatik ezin nezake hori esan. Orain badaukat beste toki bat hemen kantari bezala eta hemendik kanpo ere bai. Baina, nik uste dut ofizioaren aldetik ikusita beharrezkoa dela frankotiradorea izatea. Norberak xede bat dauka buruan eta horixe lortu arte ez da laguntzarik izaten, oso lan bakartia da.

—Zer gelditzen da Pott Banda hartatik? Badauka loturarik gaur eguneko mugimenduarekin?

—Maiz gogoratzen dut hori. Beti itzulika dabilen auzia da. Batbatean sortu zen gauza bat izan zen hura eta gerora badago oihartzun bat. Orain, hain zuzen ere, disko-liburu bat aterako da Sarrionandiaren kantuekin eta hortxe nabil zeozer idaztekotan. Sasoi hura, ostegunero Bilbon biltzea, gure arteko elkarrizketa hura, hitz aspertuak, dena elkarri kontatzea niretzat behintzat oinarri bat izan zen gerora egin dudan guztirako.



"Ofizioaren aldetik ikusita, nik uste dut beharrezkoa dela frankotiradorea izatea"

Neure lagunek ere, nonbait, horrela pentsatzen dutela esango nuke. Bernardo Atxagak ordurako bazeukan lan bat egina, eta nik beti gogoratzen dut bere lehenengo nobelako pertsonaia batek esaten zuen esaera: kontsumoaren aurka, kreazioa. Apur bat gure postura hartze bat izan zen, nonbait. Eta ez da inoiz eten, harraman oso sendoa gordetzen dugulako. Oinarri bat izan zela esan ahal dugu.

—*Emak Bakia Baita* ere hor dago, ez?

—Beno hor egon zen, ez genuen erabat gauzatu, baina bai. Hori gure arteko harreman horren beste emaitza bat da. Nik horrela sentitzen dut. Ez dakit kanpotik ikusita nola izango den. Eta orain ere bagabiltza beste zenbait gauzatan, oraindik gauzatzen ez direnak baina aterako direnak. Hamar egun barru Atxagarekin joatekoa naiz Torontora, irakurketa batzuk eta kantu batzuk egitera.

LABUR-LABUR

New York...
Oso iturri emankorra.

Obaba...
Euskaldun askok ezagutzen dugun lekua baina izenik ez daukana.

Jotzeko toki bat...
Cafe Central, Madrilen.

Bixente Martinez...
Kantua izugarri ondo ulertzen duen musikari handia.

Erosi duzun azkenengo diskoa...
Maliko bi kantari disko bat. Ez zait gustatu.

Leku bat bizitzeko...
Edozein gustura egonez gero.

Angel Celada...
Babesten duen bateria jolea.

Ikusi duzun azken filma.
Kusturikaren "Katu Beltza, Katu Zuria".

Afizio bat...
Kantua.

Dabilen Harria ala Rolling Stone?
Gauza bera da.

—Esan beharrik ez dago lotura handia daukazula literaturarekin. Atxaga, Sarrionandia edo Iturralderen letrak maiz erabili dituzu. Zer izan behar du letra batek kanta bihurtzeko?

—Ez dauka araudirik baina zeozer badago. Nik oso modu intuitiboan jokatzen dut horretan ere. Osagarri narratiboa daukaten testuak asko interesatzen zaizkit baina ez dut hautatzen onena delako baizik eta halako batean

"Bi harik lotzen naute, batak nire lurrera, hizkuntzara lotzen nauena, eta besteak neure sasoira, rock-era"

zera pentsatzen dudalako: hauxe kantatu beharko nuke. Baina hau gero eta gutxiago egiten dudan gauza bat da. Azken diskoetan ia ez dut topatu kanturik. Nik beti esaten dut lehenengo diskoan poema kantatuak, kantuak eta bertsoak zeudela. Niretzat gauza ezberdinak izaten dira. Kantu batek tradiziotik begira baditu euskarri eta parametro batzuk eta poema kantatuak baditu beste libertate batzuk, askotan, batbatean entzuteko gauzak izaten ez direnak. Oso idazle gutxik egin dezakete kantu on bat, oso gauza ezberdina delako. Poesia oso gauza primitiboa da zentzu batean, gizakiari dagokiona hasierahasieratik, kantua bezalaxe, baina badauka beste zentzu bat mistikoagoa ere, hau da, beste era batera esan ezin diren gauzak esateko kreazio forma bat. Nik errespetu handia diot poesiari, benetan poesia bada.

—Zer zor diozu Atxagaren lanari?

—Behin baino gehoagotan esan dut generosidade guztien artean zailena generosidade intelektuala dela, oso jende gutxik partitzen ditu bere ideiak eta intuizioak eta Bernardo Atxaga horietakoa izan da nirekin. Nik uste dut *Etiopia* liburua iraulketa izan zela hemengo literaturan eta nire kasu partikularrean sekulako identifikazioa sentitu nuen. Atxagak eskola sortu du, dudarik gabe eta idazle ezezaguna izatetik gehien saltzen eta irakurtzen dena izatera pasatu da. Unibertsitatean ere ikasten da bere lana eta horren inguruko tesi doktoralak ere egiten dira. Nire ustez euskal munduan bizitzearen sari bat izan zen. Ezin nezake ondo neurtu baina asko da. Pentsa, lehenengo diskoa, osorik bere testuekin egin nuen. Hala ere, gauzak asko aldatu dira, dena aldatu da. Pentsa ezazu, hasieran Atxaga idazle marginala zen, ezezagun bat eta orain inork zalantzan jartzen ez duen idazlea da.

—Nola ikusten dituzu gaur egun lehenengo diskoko kanta haiek?

—Urruti. Baina kantatzen ditut, nire errepertorioan daude. Uste dut denborak bere eragina daukala, baina disko horrek badauka umore bat, giro berezi bat eta halaxe mantentzen da. Ikusten dut baneuzkala planteatuta nire ardatzak, badago kantu zaharra, talde soinu bat eta baita saiatzearen istorio hori ere, ausardiaren zer hori.

—Zure musikan tradizioak garrantzi handia dauka. Hor dago Hiru Trukurekin egindako lana ere.

—Nik egiten dudan musikari buruz denetarik entzun dut, folka dela, rocka dela, baina igual-igual zait. Nik neure burua herri kantari bezala ikusten dut; zentzu batean, nik herri musika egiten dut eta, beti esaten dudan moduan, bi ardatz dauzkat, bi harik lotzen naute: batak nire lurrera, hizkuntzara lotzen nauena, eta besteak neure sasoira, rock-era. Niretzat ez dago bat bestea gabe. Kantua, lehen esan dudan bezala, oso gauza primitiboa da eta beti da iturri bat. Kantu zaharra asko entzuten dut, ez hemengoa bakarrik eta horrek erakartzen nau gehien bat. Baina sasoi batekoak ere bagara eta nik uste dut Euskal Herrian ere aurre iritzi asko dagoela, zer den kantu zaharra, zer den euskal kantua, baditugu muga handiak geure barruan.

—Zaletu gutxi dituzun arren oso inkondizionalak dira. Nola esplikatzen duzu hori?

—Ez dakit, hori esaten didate. Ez nago lehen nintzen posizioan, inolaz ere. Ez dut harreman hori inoiz neurtu. Ikasi dut hori onartzen, nolabait errespetatzen nire entzulegoa, zaintzen ere bai, neurri batean. Orain garbiago ikusten dut musikak kantariaz gainera entzulea ere behar duela, bestela ez dauka zentzurik.

Imajinatu behar duzu zuk esaten duzuna adituko duen interlokutore bat badagoela, ez da balizkoa, baizik eta pertsona erreal bat. Hori, kantatzearen poderioz, ekitearen poderioz ikasten den gauza bat da, zer behar den ikusle horrengan zeozer uzteko. Orain normaltzat edo aintzat hartzen diren

"Orain 20 urte askoz euskal kantu gehiago entzuten zen Bilboko irratietan orain baino, baina askoz gehiago!"

gauzak duela 20 urte zeharo exotikoak ziren. Denborak arrunt aldatu dira. Orduko letrak entzutean jende asko batere ulertu gabe gelditzen zen. Aldaketa oso handia da eta kontestu horretan ikusi behar da hitz egiten ari garen hau guztia; horregatik esaten dizut ni ere ez nagoela toki berean.

—Furgoi bat, sagarrondo bati, amonari edo krack-aren gainean kanta bat egiteko gai zara. Non dago inspirazio iturria?

—Oso intuitiboa naiz, baina ez dut harrokeriaz esaten. Halako batean gai bat ikusten dut, edo ñabardura txiki bat eta horretatik abiatuta, beharbada, gauza handi horretaz hitz egiten dut. Gure gatazkak, gure beldurrak, gure afektoak, beti ere kantuak maitasunaz, gorrotoaz, heriotzaz… metafora izugarriak behar dituzten gaiak dira. Tangoa bezalaxe; ematen du txorakeria batez ari zarela eta gero gauza handi bat esaten ari zara. Azaleko horrek beste zeozer ezkuta dezake eta pitin bat hor dago ni biltzen nauena.

Gero hori kantu bilakatzeak beste bide bat hartzen du, oso ezberdina. Ez daukat metodo bakarra, baina azken urteetan musikatik abiatzen naiz. Lehenengo musika egiten dut. Beti ere asmo batekin, letrarako giro bat dudala buruan eta, beharbada, esaera batekin melodia bat osatzen dut eta gero garatu egitenn dut. Batzuetan giroak berak zuzentzen nau.

—Musika arloan, nondik edaten duzu gehien?

—Denetarik. Oso zaletua naiz oraindik ere eta zaletu gehienak bezalaxe, ez naiz hari bakarrekoa. Batzuetan ezin dut entzun ez bada kantu zaharra, eta beste batzuetan, berriz, inprobisazio musika entzuten dut, eta horrela… Ez dut kantu komertzialik entzuten ezin dudalako, ez daukat astirik eta askotan interesik ere ez. Gehiago entzun beharko nuke.

—Hiru Trukurekin landutako bideak jarraipenik edukiko al du?


—Zaila izango da guk hirurok bide hori jarraitzea eta Bizkaiko gauzekin ez dut uste. Bi disko horietan, nolabait, mundu hori erretratatu nahi genuen, nire afektoen barru-barruan dagoena. Lan hori hor dago, eta beti ere egin litezke kantu gehiago, baina badaukat beste lurraldeetako beste erreferentzia batzuk, beti ibiltzen naiz kantu zaharrak ikasten; ez dakit, beharbada, urte batzuen buruan egingo dugu zeozer.

—Zer harrera izaten dute zure kontzertuek hemendik kanpo?

—Uda honetan Mallorkan eta Vic-en egon gara. Hirugarren aldia da Vic-en jotzen dugula. Lehenengoan 100 bat entzule izango genituen eta oraingoan bazeuden 500 bat lagun. Oso kontzertu polita izan zen. Mallorkakoa hemendik kanpo egin dugun onena izan da, zentzu batean, komunikazio handia egon zen. Nik uste dut hori ere poliki-poliki aurrera doala. Madrilen badauzkat jarraitzaile oso finkoak. Nik ez dut horren kexarik. Bigarren hizkuntza bat dagoen lekuetan, hau da, berezko hizkuntza dagoen lekuetan beste jarrera bat lortzen da beti, ideologiaz aparte, ekintza ulertzen da. Beste zenbait lekutan mugatuagoa da eta gauzak klub txikiagoetan egin behar duzu. Asko dago lantzeko. Eta hau dena esanda esan behar dut nire kezka gehienak Euskal Herri barrurako direla, ez kanporako. Hemengo hainbat lurralde erdaldunetan batere erantzunik ez dugu izaten eta hau hain txikia izanda norbera erretzea ez da zaila. Galtzen da sorpresaren zer hori. Badaukagu arazo bat honekin guztiarekin. Azken urte hauetan gehien aldatu dena, eta txarrera, da gure presentzia hirietan. Orain 20 urte askoz euskal kantu gehiago entzuten zen Bilboko irratietan orain baino, baina askoz gehiago! Euskara, kakotx artean, normalizatu egin da eta jendeak ez du beharrik ikusten hemengo musikarik ipintzeko.

—Euskal kantautore zenbait komunikabideen laguntza ezagatik kexu da …

—Ez dute lagundu beharrik ikusten komertzioaren munduan gaudelako, oso garbi dago hori. Mundu guztiak daki emisora bakoitza zertan den. Ez dira horretara behartuta ikusten. Eta ikusten badute ere euskarazko ordu erdiko saio batera mugatzen dira, beste dena Madriletik edo nondikbait datozen komunikazioak dira. Hau ez da kolonialismoaren aurkako kritika erraz bat egitea, hau gure portaera da, euskaldun askok egiten duena, eta zer esanik ez baskoak. Badakizu, hau da gure gatazka. Nazionalismoak gauza onak ditu historian zehar, adibidez errespetua tradizioari baina arazoa ere bada planteatzea Euskal Herria beste estatu bat balitz bezala, zeren orduan eskaloi guztiak bete behar dira eta ez gaude eskaloi guztiak betetzeko moduan. Hori aspaldian jakina da. Egoera horretara egokitu eta nork bere gauzak ondo eta barrutik egin ditu. Nik horrelaxe ikusten dut. Nola eska diezaiokezu SER bezalako emisora bati beste portaera bat, ez badiozu beste portaera bat eskatzen informazioan edo kulturan edo musika komertzialean. Oso zaila da. Gauza asokoz orokorrago baten barruan kokatzen da hori dena. Gure arazo bera dauka Huescako jazz pianojole batek eta Cacereseko poeta batek. Komunikazioaren mundua norabide bakarrean doa mundu guztian. Gure jarrera beti izan da kexatzea baina horrela ez goaz inora.



"Komunikazioaren mundua norabide bakarrean doa mundu guztian"

— Izan duzu inglesez kantatzeko tentaziorik?

—Tentazioa baino gure gainean beti ibiltzen den gauza bat da hori. Hori hor egongo da beti. Gure aukera hau oso muturrekoa da, jende askok ulertzen ez duena eta ez arrazoi politikoengatik bakarrik baizik eta modu arrunt batean. Zenbait lagun kanpotarrek, musikariek, zera esaten didate, "Zuk egingo bazenu…" Niri iruditzen zait hainbeste daukadala ikasteko, hainbeste hobetzeko ez dakidala euskaraz taxuzkorik ezer

egiteko denborarik edukiko dudan, orduan zertarako hasiko naiz beste hizkuntza batean. Ikusiko banu dena esanda daukadala euskaraz, orduan pentsatuko nuke beharbada ingelesez egitea, baina uste dut ingelesek hobeto egingo dituztela euren gauzak, ezta? Gaztelaniaz ondo egiten dudan arren, ofizio batean nago eta ez dut ikusten neure burua horretan. Egia esan, ez daukat eragozpenik, ez dut uste euskararen gatazka hor dagoenik. Hizkuntza, eskultore batentzat burdina den bezala, niretzat materiala da eta material honekin oraindik asko daukat egiteko. Neure burua gizarte baten partaide bezala ere oso garbi ikusten dut, eta nire afektoen harremanak, mobilak, zergatik ez, euskararekin lotzen nau.

—Orain arteko disko gehienetan Mugalariak taldea izan duzu atzean. Zer harreman daukazu taldearekin?

—Nik beti egin dut lan musika arloan, eta halako batean izen bat behar nuela pentsatu nuen. Nire musikariak aldatuz doaz baina izena ez. Gure harremana oso estua da, normala denez. Neuk gidatzen dut lana, batzuetan gehiegi. Asko ikasi dut eurengandik eta beti saiatzen naiz harreman horri eusten. Egiten duguna horren ondorio dela uste dut.

—Baina *Dabilen Harria*, azken diskoa, musikari atzerritarrek grabatu dute…

—Oso garbi neukan. New Yorken egon nintzen bizitzen eta argi ikusi nuen hango musikariekin nahi nuela jo, zehazki horiekin, zeozer ezberdin aterako zela entzuten bainuen neure buruan eta halaxe gertatu da. Nire lana kanpotik begiratzea bezala izan da, ikaragarri ikasi dut. Oso positiboa da niretzat horrelako harremanak edukitzea.

—Disketxeekin ere antzeko zeozer gertatu da. Hemengoekin hasi zinen, baina azken diskoak Nuevos Medios etxearekin egin dituzu... Zer dela eta aldaketa hori?

—Aldikadak dira. Uste dut oso politika estua egiten zela orduan hemengo disketxeetan eta ezin nuen nahi nuena egin. Identifikazio baten bila ibili naiz, gauza musikalez hitz egiteko… Orain berriz nago gatazkatan, ez dakit zer egingo dudan.

—Kontzertuetan sarritan aipatzen duzu gizakia eta horren arima. Munduko hainbat hiritan bizi izanda, berdina al da gizakia han eta hemen?

—Hala uste dut, baina arrunt ezberdina da bizimodua. Horrek norberari ere bizimodua eta arima hobeto ezagutzeko bidea ematen dio, zeintzuk diren norberak dauzkan baloreak, hain begibistakoak izanagatik inoiz ikusten ez ditugunak. Hor ikusten dira harremanak, herria, familia…, herri protestante horietan beste modu batera ikusten dena. Nik neure burua gero eta gehiago ikusten dut muturreko pertsona bezala, munduko hiri handienekoa edo herri txikikoa. Hortxe ibiltzen naiz gustu-gustura. Eta musikan gauza bera. Kanpoan diferentzia baloratzen dute eta zenbat eta diferenteago, hobe. Hortik asko ikasten da, autoridade bat hartzen da. Hemen, gure gizartean, dena leporatzen zaio euskaldungoari, dena. Euskaldungoa gutxi da, ez da oso jende dotorea, glamurrik gabeko gizartea da, eta abar; eta inork ez du aztertzen Euskal Herriko erdaldunen papera: zenbat probintzianismo dagoen, zenbat aurre iritzi dagoen, eta zenbat ignorantzia dagoen euskal gauzez.

—Zure musikari hiri kutsua antzematen zaio. Zertan dira antzeko hiri guztiak?

—Hemen ez daukagu hiririk, Bilbo ez bada. Bilbo da hiri bakarra Euskal Herrian. Hiria basoaren aurkako hitzarmen bat da non bakardadea benetan gauzatzen den. Basoan bakarrik bizi denak oso gutxitan sentitzen du bakardadea. Egokitze kontua da, hor dago gizakiaren benetako gatazka, konforme egotea. Hirian basoan sentitu daiteken beldur bera senti daiteke. Gure gauzetarako, musikarako, hainbat bakarlariren elkargunea da, inspirazio iturria.

—Oñatira joan zara bizitzera. Zer dauka Oñatik hiri batek ez daukana?

—Nik etorri bezala jotzen dut pilota. Hangoa naiz, mutikotan joan nintzen eta beti eduki dut gogoa itzultzeko sorterrira. Ez dut esaten betiko. Kantuak esaten duen moduan: betiko ez da ezer. Ondo egoten naiz ni han.

—Zer projektu berri darabilzu esku artean?

—Diskoa zuzenean. Azaroaren 25 eta 26an hemen Kafe Antzokian grabatu behar dugu. Kontzertu arruntak izango dira baina grabatu nahi ditugu. Ondoren isildu egingo naiz hilabete batzuetan, diskoa atera arte.

—Badaukazu musikaz aparte bestelako gogorik, produkzioa, idaztea...?

—Produkzioa maite dut. Gertatzen dena da sekulako inplikazioa eskatzen duela eta ikasi dut ez naizela bi gauza batera egiteko pertsona, baina nahi nuke egin. ■

"Nik neure burua gero eta gehiago ikusten dut muturreko pertsona bezala, munduko hiri handienekoa edo herri txikikoa. Hortxe ibiltzen naiz gustuen"



BILBOMICRO

Elkarte Anonimoa

Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212
ZERBITZU TEKNIKOA
Tf. 4230213
48001 BILBAO

1982az geroztik
soluzio informatikoak
eskaintzen

BILBOMICRO

aldai

TAPIZTEGIA - DEKORAZIOA
ERAKUSKETA ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

ez ahaztu!
bete zure
harpidetza

TAILERRAK EUSKARAZ

- aerobic -
- zeramika -
- literatura -
- panderoa -
- euskal dantzak -

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
Salsidu 5, 1. Algorta / Tfnoa: 430 19 32

✆ 430 19 32
arratsaldeko lau t`erdietatik seiak arte

artea

gorka agirre

ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ / TESTUA: JOKIN ASPURU

Efektu bereziak

Zelan egiten da inori aizkora bat buruan sartu dioten itxura? Edota beso moztu bat? Sekretu hauen guztien jabe da Gorka Agirre gazte algortarra, efektu berezietan teknikaria dena.

Hitzordura goitik behera beltzez jantzita azaldu da Gorka, saman hilkutxa txiki bat zintzilik, defuntuaren irudia eta guzti. Izan ere, txikitatik izan ditu gustuko beldurrezko filmak, fantasiazkoak, Drakula, zonbiak eta tankera horretako lagunak. Aspaldian, bera hasi zenean *Fangoria* izeneko aldizkari bat argitaratzen zen, eta honek efektu bereziei buruzko gehigarria zekarren opari. Halantxe ikasi zituen Gorkak bere lehenengo teknikak. Efektu asko jakiekin egiten zirela ohartu zen eta pasteleria batean lanean zegoela baliatuz, hango sukaldean hasi zen esperimentuak egiten. Lerdea egiteko, nahikoa izaten da patata purea, odola egiteko, berriz, siropeak (eta ez dugu gehiago kontatuko, teknika hauek sekretuak izaten direlako). Eta horrelako nahasketak, anaiarekin eta lagunekin probatzen zituen. Gero, kalera ateratzen ziren lagunen bat ikaratzeko edo eta jendearen erreakzioa ikusteko.




Harrezkero denbora asko iragan da eta gaur egun Gorka askoz ere gauza gehiago egiteko gauza da. Film, iragarki edo antzerki lan batean ager daitezkeen efektu bereziak sortzea da bere eginkizuna: makilaje bereziak, protesiak, giro efektuak (euria, tximistak, kea...), piroteknikoak, maketak, dekoratuak, zomorroak asmatu, extralurtarrak... Berez, eremu zabala da Gorkarena, ia denetarik egiten du, baina gustukoen zer duen galdetuta, protesiak eta panpinak sortzea dela dio, hau da, irudimena eskatzen duten gauzak.

Euskal Herrian azken urteotan egin diren film labur gehienetan hartu du parte (30etik gora). Horietarako, besteak beste, aizkorakadak buruan, lepo moztuak, gorputz atal moztuak, tiroketak, bala zauriak... egin ditu. Orain Getxoko Antzerki Eskolak estrenatu berri duen *Bacantes* antzezlanerako eszenografia berak prestatu du: ardoa isurtzen duen iturria, bihotz bat, kea efektuak...

Euskal Herriko hainbat profesionalen modura, Madrilera alde egin zuen Gorkak lanera. Izan ere, euskal teknikari (elektrikari, kamara, zinema zuzendari...) ugari dabil han lanean, hemen era horretako industriarik ia ez dagoelako. Hala ere, badirudi apurka-apurka gauzak hobetzen ari direla.

Madrilen eman du azken urte hau lanean eta hainbat marka ezagunen iragarkitarako efektuak egin izan ditu: Repsol, Telefonica, Mc Donalds... Bazeukan han geratzerik, bazeukan lanik, baina apur bat bakarrik sentitzen zen eta etxera itzultzea erabaki zuen hemen bere kabuz lanean jarraitzeko asmoz. Berriki bankuarekin zorretan jarri da Algortako Salsidu kalean lonja bat erosteko. Bertan, lantegia jarri du, lantegia eta bere itxaropena. Lantegia, jakina, ez da edonolakoa, Gorkak bere ikutu iluna emango dio; lantegia (oraindik prestatzen ari da) gaztelu baten moduan atonduko du, hilkutxarik ez da faltako. ■

Harremanetarako, Gorka Agirre: 610 30 10 25





Ez dago hilkutxa eder bat bezalakorik siesta egiteko







Gorka Agirrek egiten duen lanaren adibide batzuk. Ondoko orrialdean, Gorka eta bere lagunak.



Inportaziozko zerbezarik onenak
Terraza zabala
BASARTE'NA Tel. 946 76 11 28 URDULIZ

Loteria Sopela
Iparragirre 6, Sopela

GAZTAÑAGA
INTERSPORT
TRAVEL CLUB
Lortu zure puntuak HEMEN!!
Kiroletarako behar duzun guztia!
Amesti 8 T: 4910605 ALGORTA
Sarrikobaso 42 T: 4300397 ALGORTA
Sabino Arana 93 T: 4646617 LEIOA

BODEGUILLA BUTRON
gurean euskaraz!
Bidebitarte 5 ALGORTA

kirola

txirrindularitza

Roberto Laiseka

Bizkleta gainean urte asko eman ondoren, aurten jaso du fruitua aspaldian Algortan bizi den Gernikako seme honek. Berak bilatu ez zuen polemika ere piztu zuten norbaitzuk.



TESTUA: JOKIN ASPURU

30 urte ditu eta 12 zituela hasi zen Punta Galea taldean pedalei eragiten. Arazo txiki batzuk izan zituen talde horretan eta handik Andrakako taldera alde egin zuen afizionatu urteak bertan egiteko. 24 urte zituela Euskadi taldeak (orain Euskaltel-Euskadi denak) bere bila jo zuen. Urte bi gehiagorako kontratua sinatu berri du. Argal samar topatu dugu.

—Garaipen handia Vueltan...

—Holan da, bai. Profesionaletan daukadan garaipen bakarra da eta itxarotea merezi izan du. Beste lasterketa labur horien ondoan garaipen hau lortzea desberdina da, berezia.

—Zer sentitu zenuen azken metro horietan, garaipena hain hurbil ikusita?

—Egia esan ez nuen gauza asko pentsatzeko astirik izan. Gurasoak gogoan izan nituen, nire ama beti urduri samar egoten da eta. Ni ikusten egon zitezkeen lagunak ere gogoan izan nituen. Gainera, hiru lagun etorri zitzaizkidan etapa hura ikustera; hura poza!

—Portada izan zinen egunkari guztietan...

—Egia esan etxera etorri arte ez nuen hemengo prentsa ikusi. Garbi dago garaipen garrantzitsua izan zela Euskadi taldearentzat, bazkideek ongi merezitakoa. Orain, hotzean ikusita, sinestezina egiten zait.

—Ezagutzen dut gazte bat, ona izateko aukera handiak zituena, horrenbesteko sakrifizio merezi ez zuelakoan txirrindula eskegi duena. Profesional izatea lortuta ere, beldurra ei zion hainbeste botika hartu behar izateari, presioari...

—Orain hainbeste teknikari, mediku eta abarrek gazteak saturatu egiten dituzte: jan hau eta ez bestea, serieak egin, neguan gimnasioa... Hamazazpi urte dituztela pultsometroa jartzen diete. Nik ez dut horretan guzti horretan sinesten. Zaindu beharra dago, jakina, baina larreko barik. Nik denetarik jaten dut, bizitza normala egiten saiatzen naiz eta horrenbeste urtetan ez dut uste gauza handirik galdu dudanik. Aipatu didazun kasua horrenbeste mediku, teknikari eta abarren presioak eragiten dute, seguru.

—Lasterketak ikusita beldurra pasatzen dut nik. Hain abiadura handia tropelean...

—Zartako ederrak hartu izan ditut. Jausi, jausi daiteke bat, egia da, baina kaletik joanda ere bai, edo autoan. Hala ere, ez naiz beldur izaten. Zuhur jokatzen dut, tartea utzi, ez naiz lehengoaren gainean joaten eta, batez ere, beti saiatzen naiz adi, erne egoten, istripu gehienak ohituragatik-edo jendea lasaitu egiten delako gertatzen dira eta. Egia ere bada, markagailuak laurogei adierazten duela ikusten duzunean, ba, orduan, beldur apur bat ere sentitzen dela.

—Anglirú mendate ospetsu hori ondo kostata igoko zenuen, ezta?

—Itzela da, nik diodan moduan basabidea da. %23ko aldapa dago tarte batzuetan eta gehienean %18. Astakeria da. Kontua da orain jendeak odola ikusi nahi duela, zezenetan bezala txirrindulariaren odola ikusi nahi dela. Inhumanoa da gu hortik ibilaraztea, hain errepide zahar eta arriskutsuetan. Jendeak orain show-a nahi du, espektakulua. Txirrindularia zenbat eta banatuago eta hilurren heldu helmugara, hobeto. Bartzelonako etapa hura bezala; zebrabidez betea, euritan... Getxoko zirkuitoarekin gauza bera gertatzen da; jendearentzat polita baina guretzat oso arriskutsua... Zaleak ulertu behar du urte osoan gabiltzala bizikleta gainean, eta horrelako lasterketa batera etortzean asko arriskatzen dugula. Nahiz eta tradizio handikoa izan ez da profesionalentzat aproposa.

—Nor da miresten duzun txirrindularia?

—Ez daukat idolorik, beharbada Lemond. Hasi nintzeneko garaikoa da-eta, jolasetan beti Lemond aukeratzen nuen. Txomin Perurena ere estimatzen dut, nahiz eta lasterketa mailan ezagutu ez.

—Giro ona dago tropelean?

—Ez dago lehengo giroa, lehen txantxak egiten genituen, baziren onartzen ziren ihesaldiak, orain ez zaio inori heltzen uzten. Profesionalago bihurtu da dena.

—Tropelean, nor da jatorrena?

—Nor esango dizut, ba... Ramontxu Gonzalez Arrieta, lagun handia dut.

—Zer da txirrindularitzan gehien gorrotatzen duzuna?

—Gorrotatzen dut dagoen hipokresia, zaletu batzuen jarrera, jakin barik denetarik esaten dizutenak.

—Eta gustatu?

—Lehiatzea gustatzen zait, nahiz eta ondo ibili ez, norgehiagokan ibiltzea dut gustuko. Horixe.

—Bizikleta eskegi eta ondoren, zer?

—Ba ez dut pentsatu ere egin, ezin dut horretan pentsatu, ezin dira gauza biak aldi berean egin. Ez daukat ikasketak egiteko astirik, edota lan bila hasteko. Orain oraingoak, gerokoak gero. Txirrindulariok ezer bagara, gogorrak gara. Aurre egingo diot datorrenari. ■



Argazkiak Robertok Espainiako Vueltan irabazi zueneko etapakoak dituzue

POLEMIKA

Zuk etapa irabazi ostean, Jimenez txirrindulariak zera esan zuen komunikabideen aurrean: "Behintzat, sasiespainol batek irabazi du". Gero polemika, eztabaida piztu zen. Zer esan behar duzu honen aurrean?

"Bai, halaxe izan zen. Nik uste dut berak ez zuela zentzu txarrean esan, izan ere, askotan berba egiten dut berarekin. Oso berbatsua da Jimenez, denetaz hitz egiten du, sarritan jakin barik, ganorabakotxo xamarra da eta, gainera, Ser irratian esatari lanetan ibiltzen da. Adierazpen haren harira, hor atera ziren El Mundo, Diario 16, El Pais... Gu zirikatzea gustatzen zaie, badakizu... Kontua da euskaldunok ez gaituztela lar maite Ebrotik behera; hor daukazu Olanoren kasua, orain estatuko txirrindularirik onena, eta beti bera kritikatzen dabiltza. Niri polemika hau guztia tontakeria galanta iruditzen zait. Nik badakit zer naizen baina ez naiz horrelako iskanbiletan sartuko, bestela jai edukiko nuke; oso indartsuak dira euren komunikabideak. Nik, hala ere, garbi esan nuen: "Nire taldea euskalduna da, enpresa euskalduna da eta ni euskalduna naiz eta ez daukat ezer gehiagorik esateko, ni pedalei eragiteko etorri naiz Vueltara eta ez beste ezertara". Eurak gerra nahi dute; nik, ostera, ez. Orain mundialera joango naiz eta direnak eta ez direnak entzun beharko ditut. Hala ere, zalantzarik ez dut: euskal selekziorik inoiz badago eta deitzen banaute, hara joango naiz eta ez bestera".





Holandara joan ziren tiralariak (Jose Iturregi kapitaina falta da) Zutunik ezkerretik eskuinera: Aitor Ardeo, Josu Elosegi "Litri", Igor Anuzita "Koletas", Luis Fernández. Makurturik: Igotz Ardeo, Xabier Sobrevilla "Buho", Eneko Lamas "Platas", Pedro Aurrekoetxea eta Unai Ardeo.

kirola

getxo herri kirol taldea

TESTUA: JOKIN ASPURU / ARGAZKIAK: MIKEL M.

Sokari gogoz tiraka

Getxo Herri Kirol Taldeak Holandako sokatira mundialetan parte hartu du

Pozik itzuli dira etxera Getxoko tiralariak Holandako mundialetatik bueltan. Nuarbe eta Mutrikoko taldeekin batera izan ziren han Euskal Herriko koloreak defendatzeko ahaleginak egiten. Lan kontuak zirela eta, hainbat tiralarik ezin izan zuen Holandarako bidea hartu eta gazteagoekin lehiatu ziren getxostarrak, hala ere, pozik daude lortutakoarekin: 560 kilotan zortzi taldeetatik seigarren postua eta 640 kilotan zazpi taldeetatik bosgarrena. Ez daude, berriz, hain pozik Nazioarteko Federazioak Euskal Herriarekiko duen jarrerarekin. Izan ere, ez dute Euskal Herria nazio gisa onartzen, nahiz eta Espainian beste herri kirol federaziorik ez egon, soilik Euskadikoa. Ez diete ikurrinarekin lehiatzen uzten, eta hemengo taldeek Espainiako banderapean aritzeko gogorik ez dutenez, Nazioarteko Federazioaren bandera eta himnoa jarri zizkieten. Presoak Euskal Herriratzea eta askatasuna eskatzen zuten pankarta bi zirela-eta ere, arazoak izan zituzten antolatzaileekin baina azkenean akordioa lortu eta finaletan, Euskal Herriko taldeek tiratzen zutenean erakusteko baimena lortu zuten.

Getxo Herri Kirol Taldea duela lau urte sortu zuten, eta hasieratik gizonezko eta emakumezkoen talde bana ibili dira lehian. Urte hauetan izandako bajak tiralari gazte berriekin betetzea lortu dute; ez, ordea, talde finkoa mantentzea, eta hori emaitzetan nabaritzen da. Aurten nesken taldea osatzeko jende faltan ibili dira eta kirol honetara hurbiltzeko gonbitea egiten dute.

Uribe Kostan, antza, osasuntsu dabil sokatira. Izan ere, Getxokoaz gain badira beste lau talde: Berangoko Torrekolanda, Erandioko Goiherri, Leioako Euskal Kirol Zaleak eta Urdulizeko Iparralde. Gutxigatik bada ere, indartsuenak Goiherrikoak ei dira. ■

kritika

diskoak

Bero, oso bero

Red Hot Chili Peppers; bizitzaren kolpe latzek moteldu eta era berean pentsakor bihurtu dituela ematen du



"Californication"

TESTUAK: SABIN UGARTE

Lau urte dira Red Hot Chili Peppers-ek *One Hot Minute* lana plazaratu zuela. Lan hark ez gintuen erabat ase, ez baitzen 90eko hamarkadako gailurra izan zen *Blood Sugar Sex Magik* (1991) lanaren parera inondik inora heldu. Erraza izan ez den arren, eraberrituta datoz oraingoan.

92an, *Blood Sugar Sex Magik* diskoaren promozio-bira bete-betean zegoela, John Frusciante kitarra joleak, artean heroinak jota eta Anthony Kiedis abeslariarekin izan ohi zituen gorabeherekin nazkatuta, taldean jarraitzeari uko egin zion. *One Hot Minute* diskoan parte hartzeko, Jane´s Addiction taldeko kitarra jolea zen Dave Navarro lotu zitzaien baina, hala ere, gauzak ez zuen aurrera egin.

Orain, ordea, desintokzikazio zentro batetik pasatu ostean eta Kiedis-ekiko harremanak baretu ondoren, Frusciante taldera itzuli da eta lan bikain bat egiteko adina inspirazioz, gainera.

Californication izeneko lan hau —bitxia hitzjokoa!— ez da *Blood Sugar Sex Magik*, baina zenbait kanta, disko mitiko horretan egoteko bestekoak badira. Baxua eta kitarraren artean bada kimika bat, oso berezia. Hala ere, aldaketa bat gertatu da. Bizitzaren kolpe latzek moteldu eta era berean pentsakor bihurtu dituela ematen du. Tarteak eta melodiak gailendu dira eta kitarren bakarkakoak garbiago eta xehetasun handiagoz entzuten dira,



eta koroak ere landuagoak agertzen dira, "Scar Tissue" eta "Otherside" kantetan adibidez. Erritmoa, funka, rocka eta rapa ere badaude, jakina, "Get On Top", "Around The World" eta "Parallel Universe" bezalakoetan, azken hau disko honetako kantarik esanguratsuenetakoa delarik.

Red Hot Chili Peppers taldekideek originalak eta bere estiloan onenetarikoak direla erakutsi dute berriro ere, beste talde asko talde handi honen imitatzaile agertzen diren estiloan, hain zuzen. ■



Bartzelonan eta Madrilen joko du Red Hot Chili Peppers-ek azaroaren 19 eta 21ean.



MIKE NESS

"Cheating at solitaire"

Hamar urtetan puntan ibili ondoren eta azken bira bukatutakoan, Social Distortion taldeak atsedena hartzea deliberatu zuen 1998. urtean. Orduantxe gauzatu zuen taldeko liderra eta abeslaria den Mike Ness-ek, esku artean aspaldi zeukan asmoa, hots, bakarlari gisa disko bat plazaratzea. Horixe da *Cheating At Solitaire*, ordura arteko punka eta estereotipoak alde batera utzi eta estilo berrietan barrena salto egitea, alegia. Mike Ness-ek askatasun osoz lantzen du Iparramerikako musika tradizionala jotzeko duen grina, eta country, rockabilly, bluegrass eta bluesari bete-betean heltzen die. Egia esan, *Prison Bound* diskoan estilo horren eragina nabaria da jada.

Ness-en letretan antzeman ohi diren miseria eta angustia guztiak hemen ere ageri dira, jarrera baikorragoak ere erakusten dituen arren.

Disko hau EEBBetan ari da aurkezten eta bi hilabetetako iraupena izango du, bertan Social Distortion taldearen zenbait kantaren bertsioak ere joko direlarik. Hau guztia ikusita, galdera zera da, bukatu al da Social Distortion? Ezetz ematen du, nahiz eta bertsioz osatutako bigarren disko bat prestatzen ari den.

Aipu berezia merezi dute, nola ez, lan hau burutzeko lagun izan dituen Brian Setzer, Royal Crown Revue taldeko zenbait kide edo *Misery Loves Company* kanta izugarri ederrean aritutako Bruce Springsteen-ek, adibidez. ■



Women power

fanzinea

ño emeki

Gotzone Butron eta Estitxu Garaizar

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martinez

Plentzia eta Gorlizko emakume talde batek "Ño emeki" fanzine feminista kaleratu berri du

Feministatzat dituzte euren buruak, baina azkenaldian termino honek benetako esanahia galdu duenez, euren ideiak argi utzi nahi dituzte. Gaian trebatuta daude eta euren esanetan, orain behar dutena borrokatzea da, egiazko iraultza egitea. Plentzia eta Gorlizko emakume talde bat hilabetean behin, larunbat goizetan elkartzen hasi zen emakumeen inguruko gaiei buruz hitz egin eta eztabaidatzeko. Taldeak ez zuen jarraipenik izan baina handik abiatuta, Gotzone Butron eta Estitxu Garaizarrek, besteak beste, fanzine feminista bat sortzeari ekin zioten.

Ño Emeki izenburupean Plentziako jaietan ikusi zuen argia lehen aleak. Gaia zein izango zen garbi zeukaten: emakumearen irudia. Fanzinearen izenari dagokionez Gotzonek azaldu digunez, *to* edo *txo* euskaraz gizonezkoei edo animaliei "arre" esateko modua izan da beti eta hori da zabaldu dena. Hala ere, euskaraz askoz jatorragoa da emakumeekin aritzeko *no* edo *ño* erabiltzea. Bestetik *emekik* emeen egiteko modua adierazten du, ahulki, eztiki. *Ño Emeki* leloarekin euren asmoa hitzok zentzu ezberdin batekin zabaltzea da: gogorki, indartsuki... moduko hitzekin alderatzeko. Fanzine formatua aukeratu zuten, kaleratzea merkea delako (sosak euren poltsikotik ateratzen dira) eta jendearengana heltzeko modu zuzena ere badelako. Bestetik, euskara hutsean eginda dago, gizarte euskaldun osasuntsu eta eraldatzaile batean sinisten dutelako.

Ideia jakin batzuetan oinarritu dira fanzinea moldatzeko orduan. Batetik, emakumearen zapalkuntza eurek aukeratua ez dela eta, gainera, sexismoa eta arrazakeria ez bezala, gure gizartean oraindik gaitzetsi gabe dagoela. Honen aurka gizarte osoak egin beharko lukeela deritzote, berdintasuna beharrezkoa dela. Alerik ale, argitarapenak atal finkoak izango ditu. Erdialdean gai nagusia joango da eta *Zero Neuronaren kluba* deitutakoan adibidez, albiste edo gai zehatz baten salaketa agertuko da. *Etsaia etxean* atalean berriz, emakumeen okerrak azalduko dira. Eta horrela beste hainbat atal.

Sopela, Berango, Erromo eta Leioan talde feministak dauden arren, momentuz elkarte bakoitzak bere kabuz dihardu. Dena den, Gotzone eta Estitxuren asmoa Uribe Kostako mugimendu feminista indartsua lortzea da. Fanzinearen ideia etorkizunerako indarra hartu nahi duen mugimenduaren lehen urratsa baino ez da. ■



Doanekóa da "Ño emeki" eta Uribe Kostako puntu zehatzetan nahiz Bilboko liburudenda alternatiboetan (Likiniano, kasu) har daiteke.

urria

natura

Testua: Xabier Buenetxea

Urrian zer?

Hilabetero naturak eskaintzen dizkigun gauzarik ikusgarrienak azalduko dizkigu aurrerantzean Xabier Buenetxeak

Urria azaldu zaigu egutegian eta berarekin batera atal berri bat aldizkarian. Atal honek naturan gertatzen diren prozesuak eta hauexek disfrutatzeko Uribe Kostan ditugun bazterrak erakutsiko ditu.

Urria aberatsa da naturari dagokionean, aberatsa usain eta koloretan. Hosto galkorreko zuhaitzek, lehortu, eta paisaia kolore nabarrez tintatzen dute. Urria aberatsa da soinuetan ere, marea biziak ailegatzen baitira eta eurekaz batera olatu handi zaratatsuak. Aberatsa, baita, txori migratzaileei dagokienez; padura eta hondartzetan mokọ eta hanka luzeko txori ugari dabiltza. Uribe Kostan badira hainbat leku egoki hegazti bidaiarien talde hauek ikusteko. Esaterako, Gorrondatxe eta Barinatxe hondartza arteko lur muturra, Barrikako punta eta, batez ere, Billanoko lur muturra. Hegaztiak ikusteko egokiagoak izaten dira egun euritsuak eta haizetsuak, eguraldi gaiztoak hegaztiak kostaldera bultzatzen ditu eta.

Landareak

Haltzek berde koloreko fruituak erakusten dituzte, haritzak eta arteak ezkurrez gainezka egoten dira. Gramineak hazten ari dira eta gure kostaldeko tenperatura epelak lagunduta, zomorro asko dabil inguruan, negua hemen ematen duten txoritxoen jakia izango direnak. Baratzean edo soloan —hemengo moduan esanda—, azkeneko piperrak eta tomateak bildu daitezke, eta negukoak direnak laster erein beharko dira (porruak, berakatza...). Eta, gogoratu behar da, baita, sasoi honetan Ama Lurrak, hainbat perretxiko eta onddoz atontzen dituela zelaiak eta basoak. Eta hauek modu egokian bildu behar direla, hurrengo sasoian lur gainean aurkitu nahi izanez gero, behintzat. ■







Goian, pagadi bat udagoienean. Azpian ezkerrean, urrian sastraka eta sasi artean erraz ikus daitekeen aiben zuria (clematis vitalba). Ondoan, artearen fruitua, ezkurra.

BASOAN



Azeria edo, hemengo bizkeran, lukia (vulpes vulpes)

Sasoi honetan basoko mamifero txiki askok (lursaguak, muxarrak...) fruitu ugaritasuna baliatu eta negurako prestatzen dira. Udako lehorteak lurra sikatu ondoren, oraingo euriak sarritan euren babesleku diren zuloak urez bete eta kanpora irtetera behartzen ditu. Adi ibiliz gero, ehizarako egoera hau aprobetxatzen duten hainbat harrapari ikusi daitezke inguruko landetan: azeriak edo lukiak, ernubideak...



Lursagua (apodemus sylvaticus)

jan edan



aitor elizegi
gaminiz jatetxekoa

Kokotx eta onddo entsalada epela

Zelan egin

Kokotxak pil-pilean egin, gordin-puntuarekin utziz. Tanta batzuk Modena gaineratu eta koilarakada bat onddo-pure. Onddo xerrada batzuk salteatu, doraturik utzi arte. Ondoren, kokotxak olio-ozpinez atonduriko letxuga-sortatxo baten gainean ipini eta onddo xerradak alboan jarri. Saltsa gisa, pil-pila eta piperrada-olioa erabili. ■





itsaso arana, jolastoki-koa

Kata

Altun Crianza 1995

Luberri bodega, Elciego •
Arabako Errioxa •
Jatorrizko izendapena •



Begiak errez igarriko ditu ardo honen geriza kolore bizia eta erribete ubela. Sudurrean sakona, aberatsa fruta eta egur samurraren arometan. Ahoan zabala eta iraunkorra da; egurrarekin harmonian, fruta kontzentrazioa handikoa. Bukaera luzea eta iraunkorra. Ardo egokia da hau zapore handiko platerak laguntzeko; esaterako, ehiza, lumaduna nahiz azalduna.

Aholkua

Ardoa edateko tenperaturak

• Tenperaturak eragin handia dauka ardoa edateko; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake.

— Ardo zuri gazte eta lehorrak: 8°-10°tan edan behar dira. Zenbat eta tenperatura handiagoa gehiago igarriko dugu alkohola; tenperatura baxuagoetan, garraztasuna.
— Ardo zuri gozoak: 6°tan gutxi gora-behera, tenperatura honetan, espresio gozoa eta frutazkoa naharmentzen da.
— Ardo gorriak: 9° eta 12° bitartean, beltz edo zuriaren antzaren arabera.
—Ardo beltz arin eta gazteak: 12° eta 16° bitartean euren aroma eta egitura naharmentzeko.
—Ardo beltz gorpuzdunak: 14° eta 17° bitartean euren gorputza hobeto igartzeko.
—Ardo beltz zaharrak: 17 eta 18 bitartean, horrela euren bouqueta eta espresioa hobeto antzemango ditugu.

Getxoko Andra Mari zerbitzu gunea
Evitime S.A.
REPSOL
• ITV aurrekoa • Opariak
• Neumatikoak, mekanika • Prentsa, aldizkariak
• Autoen garbiketa • Elikagaiak
gasoleoa etxera eramaten dizugu
Campsa
erne! bale hau aurkeztuta 250 ptako deskontua autoaren garbiketan!!
Bilbo-Plentzia errepidea 18. km. Getxoko Andra Mari ☎ 94 430 15 00

euskaraZ sarean





Alberto De Abajo Gonzalez

Euskaraz eztabaidatzeko

400 lagun inguruk, eztabaidatu eta euskalgintzari buruzko informazioa trukatzen dute EuskaraZ posta-zerrendan

EuskaraZ posta-zerrenda Interneteko euskara hutsezko lehen eztabaidagunea da. 1996ko udazkenean sortu zuen Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB), Eusnet zerbitzariaren baliabideak erabiliz. 1999ko udaberrian, EKB desegin eta EuskaraZ-en jardunarekin aurrera egitea erabaki zuten EKBko Kitapen Batzordeak, eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Eusnet zerbitzariaren oniritziarekin. 1999ko udatik, UEU da zerrendaren kudeatzailea eta moderatzailea, Alberto de Abajo algortarra, UEUko idazkaritzako langilea. UEUko beste bi bazkidek ere laguntzen dute kudeaketan: Iñaki Alegriak eta Luis Fernandezek.

Iritzi eta informazioaren truke librerako sortu zen EuskaraZ. Euskarari buruzko edozein gaik du lekua hemen. Lehentasunez informazioa modu azkarrean trukatzeko balio izatea nahi da; esate baterako, komunikabideetan argitaratzen ez den informazioa baina euskalgintzaren jardunerako interesgarria gertatzen dena zabaltzeko. Gehiago argitzearren: posta-zerrenda hau ez da kirolaz, politikaz, gastronomiaz, edo beste edozein gairi buruz euskaraz jardun ahal izateko, baizik eta, esate baterako, ikastolen nondik norakoak, euskarazko komunikabideenak eta abar luze bati buruz informazioa modu azkarrean elkarri trukatzeko.

Posta-zerrenda eztabaidarako gunea ere izan daiteke; berri jakin baten inguruan edo beste edozein gairi buruz eztabaidatzeko aprobetxa dezakete horretarako gogoa dutenek.

Euskalgintzan diharduten-tzat dago pentsatuta EuskaraZ, normalizazioan ari direnentzat, norbanako zein erakundeentzat. Nolanahi ere, posta-zerrenda hau partaidetza librekoa da. ■

EuskaraZ eztabaida gunearen argibideetarako: www.ueu.org

San Jorge eta herensugea



BAR KATA
"eguneko menuak"
Aita Gotzon 5, URDULIZ
T: 676 18 09

BARBIRULAU 5 BOST
ALGORTA

ENEKO
BAR anesti 8

AJURIA
TABERNA
Andrés Cortina 2, bis
T: 4911447
ALGORTA

Algortako Bertsolari Eskola

Udazkenari bertsoak

Xabier Paia

Hondartza denak une batean
hustutzeko gai den dena.
Eguzkiaren printza ederrak
ezkutatzeko gai dena
abisu barik atari aurrean
agertu ohi den problema
ikus daiteke jada ez dela
plazerrerako orena
nabari baita Euskal Herrira
heldu dela udazkena.

Udako hiltzeko etorri eta
gainera ez hori bakarrik
ikaslegoa liburuetara
adi jartzen du batetik.
Depresioa sortarazten du
denbora luzez bestetik.
Fakultateetan hasiak dira
ikasle asko alferrik
orbel artean ezin baita hasi
ganorazko landarerik.

Txoriek euren kantu gozoa
beharrez isiltzen dute
eta orbela agertu ohi da
lore desberdinen truke
haize maltzurrak mindu orduko
hainbat sama zein sudurpe
dudarik gabe urtaro hauxe
bistatik kenduko nuke
INERSOaren jarraitzaileek
baino ez dute maite.

Laino beltzekin jantzi behar da
mugarik gabe zerua
eta orbelak estaliko du
marroi kolorez zorua
baina hori ez da besterik gabe
gelditzeko estakurua
halako baten jakin gabean
iritsiko da ordua
begiak berriz zabaldu orduko
helduko dela negua.

"A zan bankete, a!"

Hile honetan Berangon egon gara, Josefa Bilbao andreagaz. Laukizen jaio zan arren, Berangora ezkondu zan aspaldi eta ordutik hona hemen bizi da. Orain 91 urte dekoz. Ondo pasa dogu andra jator honegaz berbetan, batez be lehengo jateko usarioen gainean.

Testua: Andoni Llosa

—Gaztetan, lehengo denporatan, non egiten zan bazkari? Suten?
*—Bai, beheko sue. Parrillan brase atara eta hantxe. Lehen? Argirik be ez gendun eukiten etxen... petrolioargi eukiten gendun. Eta gaubetan, **"argimutile"** esaten geuntzen gauza bat paraten gendun horman eskegite. Ta hortxe izekok egiten eun afari eta guk arto zuritu eta labasuk egiten genduzan... zelango beharrak labasuk egiten! Artok ekarri, zuritu, labatik pasa eta gero errotara eroan urune egiteko. Uruneaz gero talo egiten gendun, ze ogie sekule ez gendun jaten, zapatu batzutan baino.*

—Ostantzen, beti talo?
*—Bai, talo eta morokile, esneaz eginte. Goizetan, armosu jateko urdei zatitxu bet taloaz jaten gendun, talo ta urdei. Goizetik solon ibili **belurarten**, eta bederatzik edo hamarratan armosu jaten gendun. Gero hirurak edo lauretan bazkari. Lantzean behin, armosun, **urdei egiteko lekuen** sardine zaharra jaten gendun taloaz eta oliba-orioaz, kategoriko orioaz. A zan bankete, a.*

—Zer jaten zenduen bazkarin, Josefa?
—Indabak beti. Txarri hilten zaleaz, urdei egoten zan etxen. Txorixok, solomok, saihetsak eta horrek gauzak saltzen genduzan eta urdeie etxerako gorde, egun duztitan urdei indabakaz jateko. Besterik ez gendun jaten ordun.

—Zapatu eta domekatan bardin?
—Zapatu ta domekatan amak ekarten eun libratxu bet okela, gixedu egiteko, eta domekatan garbantzuk bere, elegante!

—Zer edaten zenduen, ardaurik bai?
—Ez, txakoline. Etxeko solo-eskinetan mahatsak eukiten genduzan eta aitak txakoline egiten eun. Ostantzen, ure edaten gendun. Ardaue... jaietan baino besterik ez.

—Postre modun, frute edo?
—Gauza asko ez. Madari batzuk, eta sagarrak. Sagarrak laban erreten genduzan bandeja beten eta labako artoaren gustuez ze gozo izeten ziren haik sagarrak! Ostantzen, egun batzutan "arroskonletxe", jaietan beti.


—Bazkari eta gero koparik bai edango zenduen...
—Bai, anise eta koñaka, horrek biak. Txarri hilten zan egunen bere, mahai ganean beti anise eta koñaka egoten ziren.

—Gauben zer afari egiten zan, Josefa?
*—Talo eta esne, zopak eginte edo. **Nozonoz** patatak saltsa herden eta holango gauzak, baina nekez.*

—Nondik ekarten zenduen esne?
—Etxeko esne izeten zan. Lehen esneko behi bet edo bi euki genduzan, etxerako esne zenbetgure eukiten gendun. Orduko gure denporatan ez geuntzen esnerik saltzen kamioiri, oraingo modun.

—Txarrik aparte, zer animalik hilten zenduezan etxen?
*—Oilok bai, lantzean behin. Ostantzen oilok eta arrautzak etxetik kanpo saldu behar izeten genduzan. **Nosikuando** amak arrautze txikerrena emoten oskun, gitxitan. Konejurik-eta, eguno bere ez da etxen egon.*

—Arrainik ez zan jaten?
—Arraine nekez ikusten gendun guk, etxera ez zan ailegaten eta. Nozonoz, ama Algortara bendejeaz etorten zaleaz, gero etxera hueltan sardina fresko batzuk ekarten euzan eta parrillan erreta jaten genduzan afariten.


Josefa Bilbao

—Seguru Gabonatan gauza espeziala egiten zala...
*—Gabonatan bai. Gabonatan... ardazope eta intxursaltse. Ardazope badakizu zer dan? Batetik ardaue, eta bestetik ogi estu-estu bet, "pistola" esaten geuntzen horreri ogiri. Ardau eta pistoleaz zope egiten gendun. Intxursaltse be, beti. Gabon egunen garbantzuk bere egoten ziren, okeleaz. Entremeserako, txorixok prijidute iminten eudezan amaizekok. Koliflora be inoz egin **du**, eta orioazak sarri askotan. Gero, postrerako, "arroskonletxe", kafea, anise eta koñaka.*

—Kafea, jaietan baino ez?
—Hori da. Egun-egunen sekule ez dot kaferik ikusi geure etxen... Gabonatan edo jaietan akaso.

—Etxen tabakorik erretan zan?
*—Kia! Pentsa here ez. Neskatok ez gendun fumaten egundo here, mutilak apurtxu bet giau. Lehengo zaharrak "artobizarra" eta lastoa here fumaten **euden** batzutan. Geure etxaldean tabako ereiten gendun, baina etxerako gorde **barik** kanpoan saltzeko eroaten gendun.* ■

Hiztegia

- **Argimutile:** kandeladun tresna
- **Geuntzen:** genion
- **Belurarten:** belu arte, berandu arte
- **Urdei egiteko lekuen:** urdaia egin beharrean
- **Nozonoz:** noiz edo noiz
- **Nosikuando:** lantzean behin
- **Du:** dogu
- **Euden:** zuten
- **Barik:** beharrean

Ohartxoa:
etxe, saltsa, mahatsa eta horrelako hainbat berba gaur eguneko ortografian ipini arren, hemen ingeruko ahoskeran "tz" ahoskatzen dira: "etze", "ma(h)atza" "saltza" eta abar.



DOVER IDIOMAS
• IKASTARO TRINKOAK
• UDA ETA NEGUA
• GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
• UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK
Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA
460 00 38
460 63 41
Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZ!!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SAN IGNACIO Autoeskola
Baimenak:
LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1

Telletxe 7	Urkiola 4	Laubide 3
T: 460 27 99	T: 430 06 05	T: 676 48 39
ALGORTA	ALGORTA	SOPELA

I
Iñaki Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte plaza 3 T: 4302345
Algorta

horoskopoa



URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Genio txar hori kontrolatzen saiatu, bestela zure aurka bihurtuko da. Gauzak behar den moduan hartuz gero, hau da, patxadaz eta umorez, dena bere onera itzuliko da.



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Hezur bat apurtzeak izorratuko zaitu; zure planak bertan behera geratuko dira. Hilabete batzuetan igeltsua lagun izango duzu eta dena atzeratu behar. Pazientzia.



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Lagun bati huts egin eta berehala damutuko zara. Pertsona hori mindu ondoren, jokabideaz aldatzeko konbenientziaz ohartuko zara. Ez da inoiz zertan berandu izan.



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Sukaldaritza ikastaro batek zure aisialdia beteko du, eta barne desio guztiak txuleta eta pastelekin aseko dituzu. Jatetxe bat zabaltzeko aukera ikusten dut. Zoriontsu izango zara.



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Laster susto eder bat datorkizu; gaitz fisikorik ez da ikusten baina abisu bat izan daiteke...; beraz, arretaz ibili. Gogoratu esaera zaharra:
"Mens sana in corpore sano".



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Asteburuko bidaia batean petsona ezezagun batekin egingo duzu topo, bion arteko erakargarritasuna handia izango da eta ezkondu egingo zarete. Ez dakit zoriondu zaitudan ala doluminak eman...



GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Gorrotatzen duzun auzokide nontzebarri horrekin borrokatzea ez du merezi. Kasurik ez eta azukrea uretan urtzen den bezala kenduko zaizkizu buruko minak.



LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzea ez zenuke txartzat hartu behar. Izpiritu lehiakor hori baretzen saiatu eta lasaiago biziko zara. Ez zalantzarik izan, kontxo!



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Beti berba eta berba zabiltzanez, ezin zaitu inork jasan eta monologo hutsa da zurea. Honek guztiak zoratu egin zaitu. Hobe zenuke psikiatra batengana joan, bera ere zoratzen ez baduzu.



META

(Irailak 17 urriak 16)
Orrazkera berriaz erabat aldatuta zaude. Ikusten da zure itxura zaharrarekin nazkatua zinela eta moldeak apurtzen ausartu zarela. Zoritxarrez, ez dirudi ligatzeko balioko dizunik.



HAZIA


(Urriak 17 azaroak 15)
Siestatxoa egiteak on egiten dizula badakigu, baina, mutil, bizitza ohean egitea ere! Alferrontzi ederra egina zaude, eta oraindik nekatuta zaudela diozu? Urte batzuk barru...



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Espero zenuena laster ala berandu iritsiko da baina ez zaitez hain urduri jarri, laguntxo. Ikusiko duzunez, gauza bakoitza bere unean dator. Itxaron besterik ez duzu egin behar.

gurutzegrama



EZKER ESKUIN:
1- Zetazko ehun leuna. 2- Iodoa. Ez da eme. Rodioaren ikurra. 3- Eragiketa. 4-Ostzadar. 5- Joan den urtean. Palestinako alderdi politikoa. 6- Zinka. Bat. Joan aditzaren erroa. 7- Keburu. 8- Bizkaian, antzinako alkatea. 9- Kontsonantea. Fruitu lehorrak. 10- Ume bat duen emakumea. Eguzkia.

GOITIK BEHERA:
1- Filmeetako hizkuntz aldaketa. 2- Lehena. Esango. Kontsonantea. 3- Bertako ihauteriak famatuak dira. Zortea. 4- Zintzilikatuz ito. Lehor. 5- Kontsonantea. Juntagailua. Lur kolore. 6- Artoaren lore arrak.
7- Dabid erregearen musika tresna. Bakio erdian.

EZKER ESKUIN: Bakoa. 1-Ai. Ba. Kirolen Ohiaren Jose. CSP. Zu 1. Os. Etxebe. Zuhaitz. U. Elitek. Amo. Ek. GOITIK BEHERA: Bikoitzeko. A. Ezetsi. M. Lenin. Aho. Urka. Ido. 1. Ela. Ame. Andatuak. Hiztegi. Ale.

komikia



hiru urtez aldizkari hau dohainik banatu dugu, gure ustez bada kobratzen hasteko sasoia, ez da asko, urtean 2.000 pta. Jaso nahi duzu UK? Lagunduko gaituzu?

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

Harpidetza

Harpidetza egin nahi nuke (12 euro = 2.000 pta./urte)

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:..... *Posta Kodea* .....

Telefonoa:.....

e-mail:.....

Kontu zenbakia (20 zenbaki) .....

Sinadura

kontu zenbakia eman nahi ez baduzu...
sartu dirua zuzenean gure kontuan

BBK 2095 0022 01 3830766915

diru sarreran ipini zure izena eta bidali iezaguzu egiaztagiria

UK Uribe Kostako Aldizkaria - 171 posta kutxa. - 48990 GETXO
Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

aitormenak

VIRGINIA BERASATEGI TRIATLETA

"Alde psikologikoa oso garrantzitsua da"

Hamabost urterekin hasi zen triatloian, eta gaur egun palmares bikaina du. Lesio batek aurten probetatik at eduki duen arren, itxaropentsu ageri da olinpiadak direla eta, UNEDen bitartez egindako psikologia ikasketak patxadaz hartzen dituen bitartean.

Kirol batean aritzea gogorra da, baina hiru egitea...?
Azken finean kirol mota bat baino ez da, hiru disziplina ezberdin hartzen dituena. Baina atletak entrenatzeko korrika besterik egin behar duen bitartean, triatloia hobeto eraman daiteke, entretenigarriagoa da, batez ere goiz eta arratsaldez entrenatu behar baitut. Dibertigarria deritzot.

Nola hasi zinen honetan?
Txikitan igerilaria nintzen, korrika ere egiten nuen eskolarteko probetan. Nire aita triatloia praktikatzen estatuko lehena izan zen hemen ezer ez zegoenean. Frantziara joaten zen lehiatzera eta kirol hau hona ekarri zuen. Bera ikustera joaten nintzen eta hamabi urterekin nahi nuen bizikleta oparitu zidan. Triatloia gustatu zitzaidan eta igeriketan baino hobeto moldatzen nintzenez, honetara dedikatu naiz.

Zein da kirol honen egoera Euskal Herrian?
Maila handia dago, geroz eta neska gehiago daude. Arazoa da oso sakabanatuta gaudela. Gizonezkoen kategorian oso maila ona dago eta Espainia mailako txapelduna eta bigarrena gasteiztarrak dira, Victor eta Eneko Llanos. Oraintxe bertan hirurok gaude selekzioan olinpiadetako postuengatik lehian. Ez dugu beste kirol batzuek duten zale kopurua baina txirrindula edo atletismo munduko jendea ezagutzeko aukera badaukagu. Kirol honetan jarduteak, behintzat, ez dit gasturik eragiten. Babesleak badauzkat, Nike eta Soria Natural besteak beste, baina soldatarik ez. Beste toki batzuetan, Australian adibidez, triatletak honetan bakarrik ibiltzen dira, askoz profesionalagoa da. Asko gustatzen zait baina honetatik bizi naizela esan ahal izatea gustatuko litzaidake.


Talde baten laguntza ez izatea latza al da lehiatzeko orduan?
Bai, baina niri gehiago gustatzen zait kirol indibiduala. Horrek ez du esan nahi talde kirolak gustatzen ez zaizkidanik, baina lehiatzeko orduan indibidualtasuna gogoko dut. Bakarrik entrenatzearena da txartoen daramadana, beste batzuekin entrenatzen saiatzen naiz, txirrindulari edota korrikalariekin.

Prestakuntza fisiko eta psikiko handia beharko duzu...
Alde psikikoa oso garrantzitsua da. Gorputza ondo izan arren burua parean ez badabil ez dago zer eginik. Modu batera edo bestera guztiok gaude fisikoki berdin prestatuta, baina lehenengoaren eta hamargarrenaren arteko diferentzia mentalitate kontua da. Aurten lesioa dela-eta oso argi ikusi dut hori, arazo pertsonal ugari izan ditudalako. Ondo barneratzen ez badituzu gorputzak berehala antzematen du.

Gorlizen oporralditxo bat izan duzu...
Bai, San Inaziokoa naiz eta orain dela hiru urte Sondikara bizitzera joan ginen arren, aspalditik udak Gorlizen igaro ditugu. Ahal dudan guztietan etortzen naiz hona, asko gustatzen zait herria. Entrenatzeko toki paregabea da; igerileku estalia baino ez zaio falta.

Epe laburrera, proiekturik bai?
Mundiala apirilaren amaiera aldera daukat eta horregatik atsedena hartzen ari naiz ahalik eta lasterren entrenatzen hasteko. Datorren urtea oso garrantzitsua izango da puntuak lortu eta rankingean gora egiteko, aurten proba asko galdu baititut. Maiatza aldera olinpiadarako zerrenda jakinaraziko da. Joaterik badaukat horretara mugatuko naiz maiatzetik iraila bitartean; bestela, hemengo probetan lehiatuko naiz, hori egitea asko gustatzen zait eta. ■

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel M.



atzera begira



Pedro Goiri, Angel Juez (GB), Agapito Santamaria (GB), "Patxelo" (GB), Ramón Barruetabeña (GB), Paco Barruetabeña, 1964.

AREETAKO ZIKLOTURISTAK

BITOR EGURROLA

Santa Ana Cicloclub taldea 1960an sortu zuten Areetan Iribarnegarai anaiek, Pedro Goirik eta beste hainbat lagunek. Zikloturistak ehun lagunetik gora ziren. Gainera, zikloturistak ezezik, afizionatu mailan ibiltzen ziren txirrindulariak ere izan ditu taldeak.



MVNGIA
OKINDEGIA

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

entzun mundua biraka



Musika, herrien arimaren, arnasaren eta sentipenen adierazle.

MUNDUKO MUSIKA BILDUMA arnasa horiek guztiak dantzan pentagraman.

Erritmoak, musika maileguak, mestizajea eta egungo teknologiaren ekarpena sustraiarekin bet eginda.

Urriaren 17tik aurrera eguen eta domeketan EGUNKARIA + 550 pta. 22 lib.

Mundua ulertzeko...





zure independentzia!

BIHARFONDOS

Zapping egitea inbertsio fondoetara ere heldu da



BIHARFONDOS, INBERTSIO FONDOEI ATXIKIRIKO BIZITZA ASEGURUA DA ETA ONDOKOA AHALBIDETZEN DU:

- Zure inbertsioaren norakoa hautatzea, zuretzako aukeratutako hainbat fondoren artean.
- Zuk nahi duzunean, fondo batetik bestera aldatzea.
- Zuk behar duzunean, zati bat edo guztia berreskuratzea, penalizaziorik gabe.
- Unean-unean aukerarik onenari buruzko informazioa emango dizun profesionalen taldea edukitzea aholkulari.
- Eta zerga abantailarik handienekin.

Biharfondos, Biharko Vida y Pensiones S.A.ren bizitza asegurua da.

Aseguru hartzaileak bere kontratuaren inbertsioaren arriskua bere gain hartzen du. Asegurugilea da Inbertsio Fondoen partaidetzen titularra. BILBAO BIZKAIA KUTXAk, Aseguru Agentziako Sozietate gisa jarduten du, Biharko Vida y Pensiones, Cía. de Seguros y Reaseguros S.A.rekin hitzartutako agentzi kontratuaren arabera, eta erakunde honetako agente-erroldan, 1 zenbakiarekin agertzen da.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEHIAGO ESKAINTZEN DUENIK

www.bbk.es

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.